

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZKOITIKO UDALA

Iragarkia

2019ko martxoaren 6ko Euskarako Zinegotzi Delegatuaren Dekretuz honako ebazpenak onartu ditu:

Lehena: Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jardueri diru laguntzak lehia araubidez emateko 2019 ekitaldiko deialdia onartzea.

Bigarrena: Diru laguntza horiek aurkezteko azken egunak honakoak ezartzea:

– Euskara ikasteko (2018-2019 ikasturtea) eta uda ikastaroetako (2019 urtea) 2019ko irailaren 30a baino lehen.

– 2019ko urrian hasi eta 2020ko ekainean bukatuko diren 2019-2020 ikasturteko euskara ikastaroen eskaera 2019ko urriaren 21etik azaroaren 22ra (biak barne) aurkeztu beharko da.

– Errotuluak, irudi korporatiboko elementuak, web orriak, programa informatikoak eta publizitatea euskaraz egiteagatik eskaerak aurkezteko azken eguna 2019ko urriaren 31a izango da.

– Jarduera puntualen eskaera ekintza burutu baino hilabete lehenago egin beharko da, gutxienez.

Hirugarrena: Aipatutako diru laguntzak emateko gastua onartzea honakoaren arabera:

Aurrekontu partida: 3300.471.335.00.01.

Komertzioari diru laguntzak: 7.000,00 €.

Aurrekontu partida: 3300.480.335.00.01.

Ikastaroetarako laguntzak: 17.000,00 €.

Laugarrena: 2019 ekitaldiari dagokion deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, udaletxeko iragarki oholean, gardentasun atarian eta prentsan argitaratzea ondoko edukiarekin:

Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jardueri diru laguntzak emateko oinarrien aldaketa onartu zuen Udaltzatza 2016ko maiatzaren 30ean (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 136 zk., 2016ko uztailaren 18a).

1. *Diru laguntzaren xedea.*

Azkoitian euskara sustatzeko jardueretarako diru laguntzak ematea ondorengo atalen baterako:

- Euskara ikasteko.
- UEU, EHU-UPV eta Hik Hasiren uda ikastaroetarako.
- Errotuluak euskaraz jartzeko.
- Irudi korporatiboa euskaratzeko.
- Euskarazko web guneak sortzeko.
- Programa informatikoak euskaraz jartzeko.
- Euskaraz publizitatea egiteko.
- Euskara jarduera puntaletarako.

AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Anuncio

Aprobado por Decreto de la Concejala Delegada de Euskera de fecha 6 de marzo de 2019, las siguientes resoluciones:

Primera: Aprobar la convocatoria de concesión de subvenciones en régimen de concurso para la concesión de subvenciones destinadas a las actividades de fomento del euskera en Azkoitia en el ejercicio de 2019.

Segunda: Establecer para presentar dichas subvenciones como últimos días los siguientes:

– Las solicitudes de subvención destinada a aprender euskera (en el curso 2018-2019) y a cursos de verano (en el año 2019) se deberán presentar antes del 30 de septiembre de 2019.

– En el caso de los cursos de euskera del curso académico 2019-2020 que comienzan en octubre de 2019 y finalizan en junio de 2020 la solicitud deberá presentarse del 21 de octubre al 22 de noviembre de 2019 (ambos inclusive).

– Para solicitar subvención para rótulos, elementos de la imagen corporativa, páginas web, programas informáticos y hacer publicidad en euskera el último día será el 31 de octubre de 2019.

– Las solicitudes de subvención para actividades de carácter puntual se deberán presentar, al menos, un mes antes de su realización.

Tercera: Aprobar el gasto para conceder dichas subvenciones, de acuerdo a los siguientes puntos:

Partida del presupuesto: 3300.471.335.00.01.

Subvenciones al comercio: 7.000,00 €.

Partida del presupuesto: 3300.480.335.00.01.

Subvenciones al comercio: 17.000,00 €.

Cuarta: Publicar la convocatoria correspondiente al ejercicio de 2019 en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, en el tablón de anuncios municipal, en el portal de transparencia y en la prensa, con el siguiente contenido:

La modificación de las bases reguladoras de subvenciones para actividades de fomento del euskera en Azkoitia fue aprobada en Pleno municipal el 30 de mayo de 2016 (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 136, de 18 de julio de 2016).

1. *Objeto de las subvenciones.*

Conceder subvenciones destinadas a las actividades de fomento del euskera en Azkoitia para cualquiera de los siguientes apartados:

- Aprendizaje de euskera.
- Participación en cursos de verano organizado por la UEU, EHU-UPV y Hik Hasi.
- Colocación de rótulos en euskera.
- Traducir al euskera la imagen corporativa.
- Diseño de sitios web en euskera.
- Instalación de programas informáticos en euskera.
- Para hacer publicidad en euskera.
- Desarrollo de actividades de euskera de carácter puntual.

2. Diru laguntzen zenbatekoa.

- Euskara ikasteko:

– Euskaltegian neguan eta udan ikastaroak egin eta gainditzuten dituztenei, matrikularen % 75a. Nolanahi ere diru laguntza ez da 350,00 eurotik gorakoa izango.

– Ikastaro trinko, autoikaskuntza eta internet bidez ikastaroak egin eta gainditzuten dituztenei, matrikularen % 70a, betiere 350,00 euroko mugarekin.

– Barnetegian ikastaroak egin eta gainditzuten dituztenei, matrikula, jatordu eta egoitza gastuen % 70a, beti ere 1.050,00 euroko mugarekin.

– Urtero eskatzaileko gehieneko laguntza 1.400,00 eurokoa izango da.

- UEU, UPV-EHU eta Hik Hasiren uda ikastaroetako:

– Matrikularen, eta ez egonaldiaren, kostuaren % 75a ordainduko du Udalak ikasle, langabetu, 14.000 eurotik beherako errenta duten pertsonak, 15.000 eurotik beherako diru-sarrerak dituzten bizikidetzako unitateak, erretiratu nahiz pentsiodunei, eta % 25a lanean ari direnei. Nolanahi ere diru laguntza ez da 150,00 eurotik gorakoa izango.

- Errotuluak euskaraz jartzeagatik:

– Kanpoko errotulua euskaraz jarriz gero, kostuaren % 50a Udalak ordaindu du. Diru laguntza gehienez ere 360,00 eurokoa izango da.

– Gaztelaniazko kanpoko errotulua euskaraz eta gaztelaniaz jarriz gero, kostuaren % 20a Udalak ordainduko du. Diru laguntza gehienez ere 100,00 eurokoa izango da.

- Irudi korporatiboa euskaraz jartzearen:

– Testua euskaraz jarriz gero, kostuaren % 60a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 360,00 eurokoa izango da.

– Testua euskaraz eta gaztelaniaz jarriz gero, betiere euskarari lehentasuna emanaz (tokia, neurria, ...) kostuaren % 20a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 120,00 eurokoa izango da.

– Elementu bakoitzarengatik behin bakarrak jaso ahal izango da diru laguntza.

– Urtero eskatzaileko gehieneko laguntza 360,00 eurokoa izango da.

- Web orriak euskaraz jartzeagatik:

– Web orri osoa euskaraz jarriz gero, Udalak kostuaren % 60a ordainduko du, betiere 600,00 euroko mugarekin.

– Web orriko hasierako orria euskaraz eta gainontzekoa euskaraz eta beste hizkuntza batean jarriz gero, kostuaren % 50a ordainduko du Udalak, betiere 500,00 euroko mugarekin.

– Web orri osoa euskaraz eta gazteleraz jarriz gero, Udalak kostuaren % 25a ordainduko du, betiere 250,00 euroko mugarekin.

- Programa informatikoak euskara hutsez jartzeko:

– Kostuaren % 100 ordainduko du Udalak, betiere, 600,00 euroko mugarekin.

2. Importe de las subvenciones.

- Subvenciones para aprender euskera:

– Se reembolsará el 75 % de la matrícula a aquellos asistentes a cursos de invierno y verano que aprueben dichos cursos. No obstante, dicha subvención no será superior a 350,00 euros.

– Se reembolsará el 70 % de la matrícula a aquellos asistentes a cursos intensivos, de autoaprendizaje y a través de internet que aprueben dichos cursos. con un límite de 350,00 euros.

– Se reembolsará el 70 % de la matrícula, manutención y estancia a aquellos asistentes a barnetegis que aprueben dichos cursos, con un límite de 1.050,00 euros.

– La cuantía anual máxima por solicitante será de 1.400,00 euros.

- Subvenciones para asistir a un curso de verano organizado por la UEU, EHU-UPV y Hik Hasi:

– El Ayuntamiento abonará el 75 % del coste del curso, a estudiantes, desempleados, personas con rentas inferiores a los 14.000 euros, unidades convivenciales con ingresos inferiores a los 15.000 euros, jubilados o pensionistas, no se subvencionarán gastos de residencia. En el caso de trabajadores, éstos recibirán el 25 % del coste. No obstante, dicha subvención no será superior a 150,00 euros.

- Subvenciones por la colocación de los rótulos en euskera:

– En caso de colocar el rótulo exterior en euskera, el Ayuntamiento abonará el 50 % del coste que de ello derive, no superando la cuantía máxima de 360,00 euros.

– En caso de colocar el rótulo exterior existente en castellano en ambos idiomas, euskera y castellano, el Ayuntamiento abonará el 20 % del coste que de ello derive, no superando la cuantía máxima de 100,00 euros.

- Subvenciones por la realización de imagen corporativa en euskera:

– En caso de colocar en euskera el texto, el Ayuntamiento abonará el 60 % del coste. La cuantía máxima de la subvención ascenderá a 360,00 euros.

– En caso de colocar el texto en euskera y castellano, siempre y cuando prime el texto en euskera (espacio, tamaño, ...), el Ayuntamiento abonará el 20 % del coste. La cuantía máxima de la subvención ascenderá a 120,00 euros.

– La subvención por cada elemento se concederá en una única ocasión.

– La cuantía anual máxima por solicitante será de 360,00 euros.

- Subvenciones por la realización de páginas web en euskera:

– En caso de realización la página web completamente en euskera, el Ayuntamiento abonará el 60 % del coste, con un límite de 600,00 euros.

– En caso de colocar la primera página de la página web en euskera y la posterior información en euskera y otro idioma, el Ayuntamiento abonará el 50 % del coste, con un límite de 500,00 euros.

– En caso de colocar la página web completamente en euskera y en castellano, el Ayuntamiento abonará el 25 % del coste, con un límite de 250,00 euros.

- Subvenciones para instalar programas informáticos únicamente en euskera:

– El Ayuntamiento abonará el % 100 del coste, con un límite de 600,00 euros.

- Publizitatea euskaraz egiteagatik:
 - Publizitatea euskaraz eginez geroz, Udalak kostuaren % 60a ordainduko du, betiere 600,00 euroko mugarekin.

– Publizitatea euskaraz eta gaztelaniaz euskarari lehentasuna emanaz (tokia, neurria, ...) eginez gero, kostuaren % 50a ordainduko du Udalak. Diru laguntza gehienez ere 500,00 eurokoa izango da.

– Publizitatea euskaraz eta gaztelera eginez geroz, Udalak kostuaren % 20a ordainduko du, betiere 200,00 euroko mugarekin.

3. Diru laguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak.

- Euskara ikasteko:
 - Azkoitian erroldatuta egotea, gutxienez, ikastaroak irauten duen bitartean.
 - Hamasei urte beteta izatea.
 - Gutxienez % 85eko asistentzia izatea ohiko, autoikaskuntza, internet bidezko ikastaroetan, ikastaro trinkoetan eta barnetegian.
 - Ikastaroa gainditzea.
 - Ikastaroa utzi ala gainditzeko ez bada, itzuli beharko zaio Udalari lehen ordainketaren bidez jasotako diru laguntza.

- UEU, EHU-UPV eta Hik Hasiren uda ikastaroetarako:

- Azkoitian erroldatuta egotea.
- Ikastaroa euskaraz izatea.
- % 100eko asistentzia izatea.
- Errotulua, irudi korporatiboa, web orria, programa informatikoa eta publizitatea euskaraz egiteko:
 - Egoitza soziala eta fiskala Azkoitian izatea.
 - Testua euskaraz zuzena eta kalitatezkoa izatea.
- Errotulu eta irudi korporatiboaren kasuan:
 - Errotulu ala irudi korporatiboko elementuko testuak jardueraren berri eman beharko du (hau da, taberna, okindegia, arropa-denda ...).
 - Errotulu edo irudi korporatiboko elementu berria euskaraz edo bi hizkuntzetan jartzea. Testua ele bitan badago, euskarari eman beharko zaio lehentasuna.

- Web orrien kasuan:

- Web orria euskaraz edota euskaraz eta beste hizkuntza batzuetan izatea. Hainbat hizkuntzatan dagoenean, euskarazko testuaren portzentajea beste hizkuntzen antzekoa izan beharko du. Are gehiago, sarreran euskarazko hautapena lehentasunez egina egon beharko du.
- Web orria erabat osatuta egotea eskaria egiten den unean.
- Diruz lagundutako web orritik ezingo da euskarazko informaziorik kendu.
- Euskara eta beste hizkuntzetan egindako web orrietan euskarazko bertsioa beti eguneratuta izan behar du.

- Programa informatikoen kasuan:

- Programa informatikoa euskaraz izatea. Honek ez du eragotzikatu beste hizkuntzetan ere izatea.
- Zerbitzua euskaraz emateko gai izatea.

- Publizitatearen kasuan:

- Zabalkunde esparrua Azkoitia izatea.

- Subvenciones para hacer la publicidad en euskera:

– En caso de realizar la publicidad en euskera, el Ayuntamiento abonará el 60 % del coste, siempre con un límite de 600,00 euros.

– En caso de realizar la publicidad en euskera y castellano dando preferencia al euskera (espacio, tamaño...), el Ayuntamiento abonará el 50 % del coste. La subvención será como máximo de 500,00 euros.

– En caso de realizar la publicidad en euskera y castellano, el Ayuntamiento abonará el 20 % del coste, siempre con un límite de 200,00 euros.

3. Requisitos que deben cumplirse para solicitar las subvenciones.

- Para aprender euskera:

– Estar empadronado en Azkoitia al menos durante el periodo de duración del curso.

– Haber cumplido los 16 años.

– Tener una asistencia mínima del 85 % en cursos convencionales, de autoaprendizaje, a través de Internet, en cursos intensivos y en barnetegis.

– Aprobar el curso.

– En caso de abandonar o no aprobar el curso, se devolverá al Ayuntamiento el primer pago de la subvención concedida.

- Para asistir a un curso de verano organizado por la UEU, EHU-UPV y Hik Hasi:

– Estar empadronado en Azkoitia.

– Asistir a un curso en euskera.

– Asistir al 100 % de las clases.

• Para la colocación de rótulos y realización de imagen corporativa, sitios web, programas informáticos y publicidad en euskera:

– Tener el domicilio social y fiscal en Azkoitia.

– Redactar un texto correctamente y de calidad en euskera.

- En el caso de rótulos e imagen corporativa:

– El texto deberá informar sobre la actividad (esto es, bar, panadería, tienda de ropa ...).

– Colocar el nuevo elemento del rótulo o la imagen corporativa en euskera o en ambos idiomas. El texto en euskera primará frente al castellano en rótulos o imagen corporativa colocados en ambos idiomas.

- En el caso de las páginas web:

– Disponer de una página web en euskera y/o en euskera y otros idiomas. En el caso de diseñar la página web en varios idiomas, el porcentaje de texto en euskera deberá equipararse al porcentaje en otros idiomas. Y a la hora de entrar en la página, la elección del euskera se deberá disponer como primera opción.

– La completa finalización de la página web en el momento de la solicitud de subvención.

– Se prohíbe la eliminación de información en euskera de la página web subvencionada.

– La versión en euskera de las páginas web elaboradas en euskera y otros idiomas deberá estar siempre actualizada.

- En el caso de programas informáticos:

– Disponer del programa informático en euskera. Este requisito no impedirá su elaboración en otros idiomas.

– Poder prestar el servicio en euskera.

- En el caso de la publicidad:

– Que el espacio de difusión sea Azkoitia.

– Testuak jardueraren berri eman beharko du (hau da, taberna, okindegia, arropa-denda ...) eta gutxienez mezua ere iragarri behar du.

Euskara jarduera puntaletarako:

- Euskararen normalizazioan eragitea.
- Jarduera euskaraz izatea.
- Zabalkunde esparrua Azkoitia ere izatea.
- Udalaren aldetik bestelako diru laguntzarik ez jasotzea.

4. *Eskaerak non eta noiz aurkeztu.*

Udaleko Erregistro Nagusian (Herriko plaza z.g.) eta jendau-
rreko ordutegian 08:00-18:00 asteleheneetik ostegunera eta
08:00-15:00 ostiralean edota Herri Administrazioen Prozedura
Erkidea arautzen duen urriaren 2ko 39/2015 Legearen 16.4 ar-
tikuluak aipatzen dituen lekuetan ere bai.

Euskara ikasteko (2018-2019 ikasturtea) eta uda ikastaro-
tako (2019 urtea) 2019ko irailaren 30a baino lehen.

2019ko urrian hasi eta 2020ko ekainean bukatuko diren
2019-2020 ikasturteko euskara ikastaroen eskaera 2019ko
urriaren 21etik azaroaren 22ra (biak barne) aurkeztu beharko da.

Errotuluak, irudi korporatiboko elementuak, web orriak, pro-
grama informatikoak eta publizitatea euskaraz egiteagatik eskae-
rak aurkezteko azken eguna 2019ko urriaren 31a izango da.

Jarduera puntualen eskaera ekintza burutu baino hilabete
lehenago egin beharko da, gutxienez.

5. *Aurkeztu beharreko agiriak.*

• Izaera puntualeko euskara jardueretarako diru lagun-
tzak eskatu duten guztiak:

- E310 eskaera beteta eta sinatuta.
- Jardueraren historia eta/edo parte hartzaileen curriculum vitae.
- Egitasmoaren antolaketa zehazten duen txosten teknikoa.
- Jarduera esparrua.
- Parte hartzaileak, mailaka edo adinka zehaztuta.
- Jardueren toki eta datak.
- Jarduerari emango zaion zabalkundea (telebista, irratia, prentsa).
- Ikusle kopurua.
- Antolaketarako materialak eta giza baliabideak.

– Jarduera antolatuko duen pertsona edo taldearen fitxa osoa.

– Ekonomia txostena, jardueraren gastuak eta sarrerak ze-
haztuta.

– Beste erakunde pribatu edo publikoren batetik jasotako
edo hitzartutako diru laguntzak, behar bezala egiaztatuta. Bes-
tela, dirurik jasotzen ez delako zinpeko aitortpena.

– Erantzukizun zibilerako eta istripuetarako aseguru kontra-
tuaren kopia.

- Euskara ikasteko:
 - E320 eskaera beteta eta sinatuta eta kasu bakoitzari da-
gozkion honako agiriak:

– El texto deberá informar sobre la actividad (es decir, bar,
panadería, tienda de ropa ...) y por lo menos debe anunciar un
mensaje.

Para actividades de euskera de carácter puntual:

- Influir en la normalización del euskera.
- Desarrollar la actividad en euskera.
- Incluir a Azkoitia dentro del ámbito de difusión.
- No recibir otra subvención por parte del Ayuntamiento.

4. *Cuando y dónde deben presentarse las solicitudes.*

En el Registro General del Ayuntamiento (Herriko plaza s/n)
y en horario de atención al público de 08:00 a 18:00 horas de
lunes a jueves y de 08:00 a 15:00 horas los viernes o en cual-
quiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la
Ley 39/2015, de 2 de octubre, del Procedimiento Administra-
tivo Común de las Administraciones Públicas.

Las solicitudes de subvención destinada a aprender euskera
(en el curso 2018-2019) y a cursos de verano (en el año 2019)
se deberán presentar antes del 30 de septiembre de 2019.

En el caso de los cursos de euskera del curso académico
2019-2020 que comienzan en octubre de 2019 y finalizan en
junio de 2020 la solicitud deberá presentarse del 21 de octubre
al 22 de noviembre de 2019 (ambos inclusive).

Para solicitar subvención para rótulos, elementos de la ima-
gen corporativa, páginas web, programas informáticos y hacer pu-
blicidad en euskera el último día será el 31 de octubre de 2019.

Las solicitudes de subvención para actividades de carácter
puntual se deberán presentar, al menos, un mes antes de su rea-
lización.

5. *Documentos que hay que presentar.*

• Solicitud de subvención para actividades de euskera de
carácter puntual:

- La solicitud E310 cumplimentada y firmada.
- Historia de la actividad y/o currículum vitae de los partici-
pantes.
- Informe técnico con descripción detallada de la organiza-
ción del programa.
- Ámbito de la actividad.
- Participantes en la misma, especificando categorías o
edades.
- Fechas y lugar de la actividad.
- Difusión que se le da a la actividad (TV, prensa, radio).
- Número de espectadores.
- Medios materiales y recursos humanos necesarios en la
organización.
- Ficha completa de la persona o grupo responsable de la
organización de la actividad.
- Informe económico con descripción detallada de gastos e
ingresos de la actividad.
- Las subvenciones o ayudas percibidas o comprometidas
por otras entidades públicas o privadas debidamente justifica-
das. Caso de que no se perciba ninguna cantidad, declaración
jurada.
- Copia del contrato del seguro de responsabilidad civil y
accidentes.

- Solicitud de subvención para aprender euskera:
 - La solicitud E320 cumplimentada y firmada y la documen-
tación correspondiente a cada caso:

- * Urrian hasten diren ikastaroak:
 - N.A.N. fotokopia.
 - Matrikularen ordainketa agiria.
- * Udako ikastaroak:
 - N.A.N. fotokopia.
 - Matrikularen ordainketa agiria.
 - Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.
- Asistentzia baldintza halaberrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du.
- Barnetegi, autoikaskuntza, ikastaro trinko eta internet bidezko ikastaroak:
 - N.A.N. fotokopia.
 - Matrikularen ordainketa agiria.
 - Euskaltegiak ikastaro amaieran egindako asistentzia eta ikastaroa gainditu izanaren ziurtagiria.
- Asistentzia baldintza halaberrez ala ezustekoen ondorioz, betetzerik ez duen eskatzaileak egoera hori kanpoko agiri ofizialen bidez frogatu eta zuritu ahal izango du.
- UEU, EHU-UPV eta Hik Hasiren uda ikastaroak:
 - E322 eskaera beteta eta sinatuta.
 - N.A.N. fotokopia.
 - Matrikularen ordainketa agiria.
 - Ikasle, langabetu, erretiratu edo pentsioduna izatea ziurtatzen duen agiria.
 - Oinarrietan ezarritako diru sarrerak baino txikiagoak dituzten pertsonak edo bizikidetzako unitateek, errenta aitorenaren fotokopia; edota aitoren nahitaez egin beharra ez dutela adierazten duen egiaztagiria, eta, gainera, lana ematen dien enpresak egindako Diru sarreren ziurtagiria edo dagokion 10T-a eta aurkeztutako diru sarrerez gain bestelako inolako diru sarrerarik ez dutela egiaztatzen duen zinpeko aitorenaren.
 - Ikastaroa egin izanaren agiria. Bertan asistentzia adieraziko da.
- Errotulua, irudi korporatiboa, web orria, programa informatikoa eta publizitatea euskaraz egiteko:
 - E330 eskaera beteta eta sinatuta.
 - N.A.N. edo I.F.K. fotokopia.
 - Gastua eginda badago, fakturaren fotokopia ala aurrekontua.
 - Errotuluen kasuan, errotuluaren argazkia.
 - Euskaraz jarritako irudi korporatiboko elementuaren ale bat (kartazala, bisita txartela, albarana, faktura, poltsa ...).
 - Publizitatearen ordainketa agiria.
 - Euskaraz egindako publizitatea itzuli ala zuzendu izanaren ordainketa agiria.
 - Paperean egindako publizitatea bada, ale bat. Ikus-entzuzko publizitatea bada, euskarri digitalean kopia bat.
- Diru laguntza hauek eskatzen dituztenen zerga eta Gizarte Segurantzarekiko obligazioak betetzeari buruzko datuak administrazio honek eskatuko dizkio dagokion erakundeari.
- Diru laguntza eskaera guztiak eskuragarri daude euskara zerbitzuan.

- * En el caso de los cursos que comienzan en octubre:
 - Fotocopia del DNI.
 - Documento justificativo de pago de la matrícula.
- * En el caso de los cursos de verano:
 - Fotocopia del DNI.
 - Documento justificativo de pago de la matrícula.
 - Certificado emitido por el euskaltegi al término del curso por el que se acredite la asistencia del alumno y el haber aprobado el curso.
 - El solicitante que no puede cumplir el requisito de asistencia debido a imprevistos y fatalidades podrá probar y justificar esa situación mediante documentos oficiales externos.
- En el caso de barnetegis, cursos de autoaprendizaje, intensivos y a través de internet:
 - Fotocopia del DNI.
 - Documento justificativo de pago de la matrícula.
 - Certificado emitido por el euskaltegi al término del curso por el que se acredite la asistencia del alumno y el haber aprobado el curso.
 - El solicitante que no puede cumplir el requisito de asistencia debido a imprevistos y fatalidades podrá probar y justificar esa situación mediante documentos oficiales externos.
- Solicitud de subvención para cursos de verano de la UEU, EHU-UPV y Hik Hasi:
 - La solicitud E322 cumplimentada y firmada.
 - Fotocopia del DNI.
 - Documento justificativo de pago de la matrícula.
 - Documento justificativo que acredite la condición de estudiante, desempleado, jubilado o pensionista.
 - En el caso de personas o unidades familiares con ingresos inferiores a los estipulados en estas Bases, fotocopia de la Declaración de la Renta, o justificante de no estar obligado a su presentación y en este caso Certificación de ingresos de la empresa empleadora o 10T correspondiente y declaración jurada de no haber tenido otros ingresos distintos de los presentados.
 - Documento que acredite la participación en uno de dichos cursos, en el que se haga referencia expresa a la asistencia del alumno.
- Solicitud de subvención para la colocación de rótulos, realización de imagen corporativa, sitios web, programas informáticos y publicidad en euskera:
 - La solicitud E330 cumplimentada y firmada.
 - Fotocopia del DNI y CIF.
 - Presupuesto o fotocopia de la factura que justifique la realización del gasto, si se hubiere realizado.
 - En el caso de rótulos, fotografía del mismo.
 - Un ejemplar del elemento corporativo colocado en euskera (sobre, tarjeta de visita, albarán, factura, bolsa ...).
 - Documento justificativo de pago de la publicidad.
 - Documento justificativo de la traducción o de la corrección de la publicidad en euskera.
 - Si se trata de publicidad en papel, un ejemplar. Si se trata de publicidad audiovisual, una copia en soporte digital.
- Los datos referidos al cumplimiento de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social de las personas solicitantes de las presentes subvenciones se solicitarán directamente por esta administración a la institución correspondiente.
- Todas las solicitudes de subvención están disponibles en el servicio de euskera.

6. Diru laguntzak esleitzeko eta zenbatekoak finkatzeko irizpideak.

- Euskara jarduera puntualetarako:

– Antolatzailea Azkoitiko erakunde, elkarte, talde edo giza-banakoa izatea (gehienez 20 puntu).

– Euskarari jarduerak egiten dion ekarpena eta gizartean duen eragina (gehienez 20 puntu).

– Beste hainbat erakunde, talde, herritar eta gizarte eragileen inplikazio maila (gehienez 10 puntu).

– Elkarte edo taldeak euskara bultzatzeko egindako lana eta elkarlana Azkoitiko Udalarekin (gehienez 10 puntu).

– Ekintza irekia izatea (gehienez 10 puntu).

– Ekintza osorik euskaraz izatea (gehienez 10 puntu).

– Elkartearen diru baliabideak eta eskatutako laguntzaren proportzioa elkartearen baliabideekiko (gehienez 10 puntu).

– Udalaren aldetik bestelako diru laguntzarik ez jasotzea (gehienez 10 puntu).

7. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Euskara teknikaria aurkeztutako egitasmoak aztertu eta ebaluatuko ditu zeinek erabakiko ditu lehentasunak eta egitasmoentzako zenbatekoak. Ondoren, behin betiko erabakiaren txostena egingo du. Eskaerak jasotzeko azken egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean, proposamena ebazteko ahalmena duen udal organoari, edo honek eskuordetutakoari, emango zaio honek aztertu, onartu eta informa dezan Euskara batzordea.

8. Diru laguntzen ordainketa.

Euskara ikasteko urrian hasten diren ikastaroen kasuan, diru laguntza eman dela jakin bezain laster, diru laguntzaren % 40a ordainduko da eta horretarako ez zaie inolako bermerik eskatuko onuradunei. Gainerako % 60a onartutako diru laguntza justifikatu ondoren ordainduko da.

Euskara ikasteko uda, barnetegi, autoikaskuntza, ikastaro trinko eta internet bidezko ikastaro, eta UEU, EHU-UPN eta Hik Hasiren uda ikastaroetako diru laguntzak, aldiz, kurtso bukaeraren emango dira, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

Errotulua, irudi korporatiboa, web orria eta programa informatikoak euskaraz jartzearen, berriz, ordainketa bakarra egingo da, justifikatu eta gero, behin diru laguntza ematea erabaki eta gehienez bi hilabeteko epean. Publizitatea euskaraz egiteagatik ere bai.

Jarduera puntualen kasuan, azkenik, ordainketa bakarra egingo da, baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu eta betiere, gastua egin eta frogatu ondoren.

9. Araudia.

Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan honako arauak aplikatuko dira: azaroaren 17ko Diru laguntzen 38/2003 Lege Orokorra (azaroaren 18ko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); horren garapenerako Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua (uztailaren 25eko *Estatuko Aldizkari Ofiziala*); eta Azkoitiko udalerrian euskara sustatzeko jarduerari diru laguntzak emateko oinarriak (Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALA, 136 zk., 2016ko uztailaren 18a).

10. Errekurtsoak.

Deialdi honen aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango zaio hilabeteko epean deialdia onartu duen organo esku-

6. Criterios para la adjudicación y ponderación de las subvenciones.

- Subvenciones para actividades de euskera de carácter puntual:

– El organizador será una entidad, asociación, grupo o persona individual de Azkoitia (hasta 20 puntos).

– Aportación e influencia en la sociedad de la actividad en el ámbito del euskera (hasta 20 puntos).

– Nivel de implicación de otras entidades, grupos, ciudadanos y agentes sociales (hasta 10 puntos).

– Trabajo y colaboración realizado por la asociación o grupo con el Ayuntamiento de Azkoitia para el fomento del euskera (hasta 10 puntos).

– Actividad de carácter público (hasta 10 puntos).

– Actividad desarrollada exclusivamente en euskera (hasta 10 puntos).

– Recursos económicos de la asociación y proporción de la subvención solicitada respecto a los recursos de la misma (hasta 10 puntos).

– No recibir otra subvención por parte del Ayuntamiento (hasta 10 puntos).

7. Plazo para la resolución y notificación.

El técnico de euskera analizará y evaluará las solicitudes presentadas y establecerá las preferencias y los importes de las subvenciones. A continuación, redactará el informe correspondiente a la resolución definitiva. A partir del día siguiente del fin del plazo para la presentación de instancias y en el plazo de un mes, se presentará la propuesta al órgano municipal competente o éste a su delegado, para su posterior análisis y aprobación e informará a la Comisión Informativa de Euskera.

8. Pago de las subvenciones.

Las subvenciones para aprender euskera en el caso de los cursos que comienzan en octubre, inmediatamente a la notificación de la concesión de la subvención, se procederá a tramitar el abono a cuenta del 40 % de la ayuda, no exigiéndose para ello garantía alguna a los beneficiarios. El 60 % restante se abonará previa justificación del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió.

Las subvenciones para aprender euskera en los cursos de verano, barnetegis, cursos de autoaprendizaje, intensivos y a través de Internet y asistir a un curso de verano organizado por la UEU, EHU-UPV y Hik Hasi se abonarán al término del curso, con la justificación del cumplimiento de todos los requisitos y previa incursión y acreditación del gasto.

En el caso de colocación de rótulos, realización de imagen corporativa, páginas web y programas informáticos en euskera, se procederá al pago único previa justificación y en un plazo máximo de dos meses tras el acuerdo de concesión de la subvención. También por hacer publicidad en euskera.

En caso de actividades de carácter puntual, se procederá al pago único con la justificación del cumplimiento de todos los requisitos y previa incursión y acreditación del gasto.

9. Normativa.

Para todo aquello no establecido en esta convocatoria se estará a lo dispuesto en: la Ley 38/2003 General de Subvenciones, de 17 de noviembre (*Boletín Oficial del Estado* de 18 de noviembre); el Reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006, de 21 de julio (*Boletín Oficial del Estado* de 25 de julio); y las bases reguladoras de subvenciones para actividades de fomento del euskera en Azkoitia (BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa, n.º 136, de 18 de julio de 2016).

10. Recursos.

Podrá interponerse recurso de reposición contra esta convocatoria en el plazo de un mes ante el órgano competente que

dunari, edo zuzenean aurka egin ahal izango zaio bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari.

Epeak bi kasuetan deialdi hau argitaratu eta biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Bosgarrena: Erabaki horiek Kontuhartzaitza sailari jakinaraztea.

Azkoitia, 2019ko martxoaren 7a.—Euskarako zinegotzi delegatua. (1572)

haya aprobado la convocatoria, o bien podrá ser impugnado directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo.

En ambos casos, el plazo comenzará al día siguiente a la publicación de esta convocatoria.

Quinta: Comunicar dichos acuerdos al departamento de Intervención.

Azkoitia, a 7 de marzo de 2019.—La concejala delegada de euskera. (1572)